

2017ko ekainaren 21ean ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 3

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK : Asier Ibarguren
Arkaitz Iruretagoiena
Igor Iturain

Hodeiza Sallen

Eñaut Guruzeaga

Kontxi Lazkano

Jon Ander Azpiroz

Sergio Cubero ,M^a Jesus Arruabarrena eta Aitor Arregi ez ziren bertaratu nahiz eta deituak izan.

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2017ko maiatzaren 3an eginiko Udalbatzarraren Akta ontzat emanda aho batez.

2.- Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2 . zkia duen espedientea onartzea.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman du Alkateak. Andatzako elkarteko egokitzapen obrak egiteko partida ez dela heltzen eta 60.000 € gehiago behar direla dio hark.

Eñautek bere taldearen adostasuna azaldu du, eurek ere ados direlako Andatzako elkartearen egokitzapenarekin.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostenaren berri eman du. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin. Baita ere aldaketak betetzen dituela araudiak eskaturiko 3 eskakizunekin, gastoaren erregela, defizitaren helburua eta egonkortasun finantzieroarena.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, aldeko 8 boturekin, beraz, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Gehikuntzak</u>
6	INBERTSIO ERREALAK : ANDATZAKO ELKARTEA	60.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		60.000,00

FINANTZAKETA

<u>Kapitulua</u>	<u>Izena</u>	<u>Zenbatekoa</u>
4	U.F.F.F	60.000,00
GUZTIRA		60.000,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

3.- Eskari-galderak

Ez da izan ez eskari ez galderarik.

**Bilera, 19,40tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen,
Idazkariak hau ematen du, Aian 2017ko ekainaren 21ean.**

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK